

Euskotrenek, **mugikortasun iraunkorreko operadore publikoa** den aldetik, hiri barruko eta hiriarteko mugikortasuna bultzatzea du helburu, pertsonen lekualdaketa **segurtasun-, kalitate-, erosotasun- eta puntualtasun-**baldintza egokietan bermatuz, ingurumena babesten eta herritarren bizi-kalitatea hobetzen lagunduz.

Euskotreneko Zuzendaritzak Politika hau **Kalitatea Kudeatzeko Sistemarako** erreferentzia-esparru gisa ezartzen du, erakundearen estrategiarekin, bere testuinguruarekin eta erabiltzaileen eta gainerako alderdi interesdunen itxaropenekin lerrokatuta.

Ilido horretan, Euskotrenek konpromiso hauek hartzen ditu:

- **Erabiltzaileak kudeaketaren erdigunean kokatzea**, haien beharrak eta itxaropenak ezagutzen, aztertzen eta kontuan hartzen direla ziurtatuz zerbitzua ematean.
- **Zerbitzu segurua, fidagarria eta kalitatezkoa ematea**, prozesuak modu planifikatu eta koherentean kudeatuz eta erabakiak hartzea jarduna hobetzera bideratuz.
- **Bere jarduerari aplika dakizkiokeen lege eta erregelamendu baldintzak eta bestelako baldintzak betetzea**, bai eta erakundeak borondatez sinatzen dituen konpromisoak ere.
- **Kudeaketa sistemen eta prozesuen etengabeko hobekuntza sustatzea**, erabiltzaileen gogobetetzea, efizientzia operatiboa eta zerbitzuaren jasangarritasuna handitzeko funtsezko tresna gisa.
- **Pertsonen inplikazioa, gaitasuna eta parte-hartzea bultzatzea**, emaitzetara bideratutako elkarlaneko ingurune bat sustatuz.
- **Enpresa hornitzaile eta laguntzaileekin lankidetza harremanak garatzea**, konfiantzan, gardentasunean eta elkarrekiko onuran oinarrituta.
- **Kalitatearen kudeaketa beste kudeaketa-eremu batzuekin integratzea**, Euskadiren garapen jasangarrian eta erakundearen gizarte-erantzukizunean lagunduko duen ikuspegi koherente eta transbertsala bultzatuz.

Zuzendaritzak politika horren komunikazioa, aplikazioa eta aldizkako berrikuspena ziurtatzen ditu, erakundearen eguneroko kudeaketan txertatzea eta zerbitzua etengabe hobetzen laguntzea sustatuz.



The stamp contains the Euskotren logo and the text: "Euskotren", "Euskotren", "Euskotren", "Euskotren".